

10ALAMENOS<sup>9</sup>

NANORELATOS

CIC nanoGUNE  
CENTRO DE INVESTIGACIONES TECNOLÓGICAS

## NANOZIENTZIA ETA NANOTEKNOLOGIAREN VII. JAIALDIA 2022

### NANOISTORIOEN LEHIAKETA:

# “ISTORIO ASKO SARTZEN DIRA NANOMUNDUAN: KONTATU!”

Lehiaketa hau bi mailatan egiten da: bata Areto mailan, horietako bat Euskal Herria, eta beste bat nazioarte mailan. Hona hemen Euskadiko Egoitza Nagusiari dagozkion lehiaketaren oinarriak.

### EUSKAL HERRIKO EGOITZAKO FASEA

Lehiaketa hau, Euskal Herriko Egoitza mailan, CIC nanoGUNE ikerketa zentroak antolatzen du, “[10alamenos9](#)” Nanozientzia eta Nanoteknologiaren VII. Jaialdiaren baitan. Lehiaketa honen helburua hezkuntza komunitatean eskala nanometrikoan munduarekiko interesa sustatzea da, nanomundua deritzona, tamaina txikia izan arren oso anitza eta interesgarria dena.


### OINARRIAK

Lehiaketa hau Lehiaketa Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako (1) hezkuntza-zentroetan ikasten ari diren ikasleei, (2) bizi diren gazteei, eta (3) mundu osoko gazte euskaldunei dago zuzenduta. Gazteek 2021/12/31tik 14 eta 17 urte bitartekoak izan behar dira. Parte-hartzaileek, beraz, hezkuntza-maila hauetako bat ikasiko dute: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. eta 4. mailak, Batxilergoko 1. eta 2. mailak, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

Lehiakide bakoitzak beste lehiaketa batean parte hartu ez duen lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Nanoistorioak **gehienez 200 hitz** izango dituzte, eta euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dira. Abenturazko istorioak, zientzia fikzioa, fantasia, istorio soziala, etab. izan daitezke. Idatzizko beste lan mota batzuk ere aurkez daitezke, hala nola olerkiak edo abestien letrak. **Baldintza nagusia da aurkeztutako lana nanozientziarekin eta nanoteknologiarekin lotuta egotea.**

**Lanak aurkezteko azken eguna 2022ko maiatzaren 20a, ostirala, izango da.**

Lanak izen-emate formulario baten bidez bidali behar dira, [www.nanogune.eu](http://www.nanogune.eu) orrialdean agertuko dena. Euskal Autonomia Erkidegoko Egoitza Nagusiko partaideek haien istorioa idatziko duten Word **Txantiloia** deskargatu beharko dute webgunetik. Parte-hartzaileek **ezizen** bat erabili beharko dute. Literatura lana dagokion txantiloia erabiliz bidaliko da eta "Ezizena-HAsierakotitulua" deituko da, non "Hasierakotitulua"



10ALAMENOS<sup>9</sup>

NANORELATOS

CIC nanoGUNE  
MINISTERIO DE CIENCIAS E INICIATIVA DE EMPLEO

lanaren izenburuaren hasierako lehen hamar karaktereak diren, zuriunerik gabe. Adibidez, honela: "Nanobot27-Atomobatda.doc" edo "DonGrafeno-Ehungalder.pdf".

Web orrialde berean **Izen-emate Buletina** aurkituko duzu. Dokumentu horretan parte-hartzailearen identifikazio datuak eta bere ezizena daude. Agiri hau betetzerakoan, parte-hartzaileak, hezkuntza-zentroko tutoreak eta guraso edo legezko tutoreetako batek gutxienez sinatu behar dute, eta, hala, adingabeak lehiaketan parte hartzeko baimena eman eta onartu egin duela egiaztatzen dute oinarriak. Izen-emate orria PDF formatuan behar bezala sinatuta eta eskaneatua, "Ezizena-erregistroa" deitu behar da (adibidez, "Nanobot27-erregistroa.pdf" edo "DonGrafeno-erregistroa.pdf").

Parte hartzaileak aldi berean bidaliko ditu **bi dokumentuak (lana eta izen-ematea)** webgunean erantsitako galdetegiaren bitartez.

Arau hauek ez betetzeak aurkeztutako lanaren kanporaketa suposatzen du.

Lan guztiak **CIC nanoGUNE**ren esku geratuko dira eta geroago erabili ahal izango da, inprimatuan edo formatu digitalean **CIC nanoGUNE eta 10alamenos9**ren web orrietan eta beren sare sozialetan. Nolanahi ere, lanen erabilera ez da inoiz irabazi asmorik izango eta aukeratutako ipuinen egileak aipatuko dira beti, baita haien hezkuntza zentroak ere, partaidetza aipatutako hezkuntza zentroen bitartez egin bada.

## EPAILEAK

Epaimahaia CIC nanoGUNEko ikertzaile, dibulgatzaile eta komunikatzaile zientifikoek eta literatur arloko pertsonak osa dezakete.

Epaimahaiaren erabakia 2022ko ekainaren hasieran ezagutaraziko da eta interesdunei jakinaraziko zaie.

Sariak "hutsik" gera daitezke aurkeztutako lanek kalitate minimo bat betetzen ez badute.


Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

## SARIAK

### Parte hartzen duten ikasleentzako sariak.

Sariak bi kategoriatan banatuko dira:

- A kategoria: 2021/12/31tik aurrera 14 edo 15 urteko parte-hartzaileak.
- B kategoria: 2021/12/31tik aurrera 16 edo 17 urteko parte-hartzaileak.



IOALAMENOS<sup>9</sup>

# NANORELATOS

CIC  
nanoGUNE  
CENTRO DE INVESTACIONES TECNOLÓGICAS

Kategoria bakoitzeko, Eureka! Zientzia Museoa gozatzeko bi lagunentzako ekintza sorta batek osatuko duen sari bat banatuko da. Ikasketa zentroaren bitartez izena eman badute, 2022-2023 ikasturtean nanoGUNE bisitatzeko aukera ere emango zaie.

Sariekin batera, akreditazio-diploma bat emango da.